

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

GUARDIAKO UDALA

Behin betiko onestea hiri barruan bidaiariak turismo automobiletan garraiatzeko zerbitzua (taxia) arautzen duen ordenantzaren aldaketa

I. TITULUA: ARAU OROKORRAK

1. artikulua. Ordenantzaren xedea eta eremua

“Ordenantza honen xedea da Guardiako mugen barruan bidaiariak hiri barruan turismo automobiletan (aurrerantzean, “taxi zerbitzua”) garraiatzeko zerbitzua arautzea; Guardian aplikatzekoak dira udalerriko hiri tarifak.”

Ordenantza hau aplikatuko zaie zerbitzura (aurrerantzean “taxiak”) atxikitako ibilgailu guztiei, turismo ibilgailuetan bidaiariak hiri barruan garraiatzeko udal lizentziaren titular direnei (aurrerantzean “taxilariak”) eta ibilgailu horien gidariei, baldin eta Guardiako Udalak (aurrerantzean “udala”) emandako lizentziaren bat badute. Aplikatuko zaie, halaber, zerbitzu horren erabiltzaileari, ibilaldia Guardiako udalerrian egiten badute.

Garraio lizentzia eta baimena. Turismo ibilgailuen udal lizentzia hiri barruko garraioa egiteko gaitzen duen titulua da, eta Arabako Foru Aldundiaren baimena, aldiz, herri arteko garraioa egiteko gaitzen duena, Guardia-Arabako Errioxako Kuadrilla hartuz taxiaren baterako zerbitzuko lurralde eremu gisa, 79/2008 Foru Dekretuaren arabera.

Herri arteko zerbitzuak honako hauek soilik eman ahalko dituzte: udal lizentzia eta Arabako Foru Aldundiak emandako garraio baimena duten titularrek. Bai hiri garraioko lizentziak bai herri arteko garraioko baimenak Guardiako Udalean eskatu behar dira; gero udalak Arabako Foru Aldundira bidaliko ditu herri arteko garraioko baimena emateko diren eskaerak.

2. artikulua. Zerbitzuaren printzipio gidariak

Hauek izango dira taxi zerbitzuaren jarduera gauzatzeko printzipioak:

- a) Zerbitzuaren unibertsaltasuna, irisgarritasuna eta jarraitutasuna.
- b) Erabiltzaileek kalitateko zerbitzua izateko duten eskubidea eta lizentzien jabeek lan baldintza eta diru sarrera duinak izateko duten eskubidea.
- c) Administrazioaren esku hartzea, zerbitzua emateko orduan ahalik eta kalitaterik onena lortze aldera interes publikoa bermatu beharrean oinarritua.
- d) Udalaren eta lizentzien jabeen arteko lankidetzeta, zerbitzua emateko modua hobetze aldera.

II. TITULUA: LIZENTZIAK

3. artikulua. Lizentzia kopurua

Garraio eta Herrilan sailburuaren 2005eko otsailaren 11ko Aginduak, Euskal Autonomia Erkidegoan automobiletan egiten den bidaiarien herri arteko garraio publikorako gehieneko baimen kopurua ezartzen duenak, 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, Guardia 10.000 biztanletik beherako udalerria denez, gehienez ere 2 lizentzia eman daitezke.

Hala ere, Garraio eta Herrilan sailburuaren Euskal Autonomia Erkidegoan automobiletan egiten den bidaiarien herriz kanpoko garraio publikorako gehieneko baimen kopurua ezartzen duen

2005eko otsailaren 11ko Aginduaren 5. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, ugaritu egin ahal izango dira baimenak, zeren xedatzen baitu eskualde bateko udalerrien artean konpentsatzea dagoela dagokien gehieneko baimen kopurua, baldin eta eskualdeko udalerririk guztiei dagokien gehieneko baimen kopurua gainditzen ez bada.

4. artikulua. Lizentziak ematea

“Taxi zerbitzuaren udal lizentziak udal organo eskudunaren ebazpen bidez emango dira, doan edo kostu bidez; horretarako, alde aurretik lehiaketa bat deituko da. Lehiaketa horretan baloratu ahalko dira, besteak beste, honako alderdi hauek:”

- Eskaintza ekonomikoa, doakoa ez bada.
- Hizkuntzak jakitea.
- Lizitzaileek zerbitzuaren ezaugarri berezietan egiten dituzten proposamenak.
- Beste lizitzaileen aldean zerbitzua hobetzen duten bestelako merezimenduak.

Lehiaketan parte hartzeko, lizitzaileek Guardian egon beharko dute erroldatuta eta bertan bizi gutxienez, azken sei hilabeteetan, zerga betebeharrak beteta izango dituzte eta trafiko eta bide segurtasun arloan organo eskudunak emandako dagokion gida baimena izango dute; horiez gain, ez dute izan beharko lan horretan jardutea zailtzen edo eragozten duen inongo ezintasun fisiko edo psikikorik.

Izapidetu beharreko espedientean txostena eskatuko zaio Arabako Lurralde Historikoko Taxi Batzordeari. Batzorde hori eraturik ez badago, txostena Eusko Jaurlaritzari eta Arabako Foru Aldundiari eskatuko zaie eta entzunaldia emango zaie ordenantza honetan kontuan hartutako taxiaren sektoreko kolektiboari.

Izapidetu beharreko espedientean tramite bat jasoko da ordenantza honetan kontuan hartutako elkargo profesionalari entzunaldia emateko, bidezkotzat jotzen dutena alegatzeko prozedura horretan onartu edo baztertutako hautagaien inguruan. Udalak emandako lizentzien erregistroa izango du; bertan titularitatearen inguruko gorabeherak jasoko dira, bai eta haiei lotutako ibilgailuak, egindako arau haustekak, ezarritako zigorrak eta lizentziari edo baimenari dagozkion bestelako gaiak ere.

Erroldan jasotako datuak publikoak izango dira. Dena dela, inork haiek kontsultatzea nahi balu, legezko interesa agertu beharko luke, Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 13.d artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

Lizentzia bakoitzak titular bakarra izango du, une bakoitzean izendatutako gidari bakarra, eta ibilgailu bakarra ezarriko zaio. Pertsona bera ezingo da lizentzia baten baino gehiagoren titularra izan.

5. artikulua. Lizentzia motak

“Taxi zerbitzuan jarduteko udal lizentziak bi motatakoak izan daitezke: “ohikoak” edo “egokituak”.

Lizentzia “egokituak” dira batez ere pertsona ezinduen garraiorako direnak; gainerakoak “ohikoak” dira.

Lizentzia egokituak garraio irisgarritasunaren alorrean indarrean dauden arau teknikoari jarraikiz egokitutako ibilgailua eduki beharko dute zerbitzuari atxikia beti.

Lizentzia egokituak xede horri begira sortu eta eman ahalko dira; halakoetan egokituen izaera haiei datzekien berezko ezaugarritzat hartuko da. Edo, ohiko lizentzia bati dagokionez, jabetza hori aldi baterako lortu ahalko da, titularrak hala eskatu eta udalak hala baimendu duelako.

Berez izaera egokituak duten lizentziek ezingo diote egokitu izateari utzi alde aurretik aldakuntza horrek taxi egokituen lizentzien kopurua murriztea ez duela ekarriko bermatzen ez bada.

Lizentzia batek aldi batez egokitu izaera bereganatzen duenean, gutxienez bost urterako izan beharko du, eta iraupen bereko aldietarako luzatuko da hori, jabeak egoera arruntera bihurtzeko eskatzen ez duen bitartean; eta, eskatzekotan, indarrean dagoen aldia bukatu aurretik eskatu beharko du. Dena den, aldi baterako baimenak eten ahal izango dira eta ohiko bihurtu, baldin eta batera lizentzia eskualdatzen edo lizentziari atxikitako ibilgailua aldatzen bada.

Berez egokitu izaera duen lizentzia baten jabe denak, udalaren baimena tarteko dela, izaera arrunteko beste lizentzia baten jabearekin jabetasuna trukatzeko eskabidea egin ahal izango du, eta lizentzia baten eta bestearen jabeak trukatu egingo dira halakoetan.

6. artikulua. Lizentziak eskualdatzea

Lizentziak eta baimenak ezin izango dira eskualdatu, kasu hauetan izan ezik:

a) Titularra hilez gero, alargunaren edo legezko oinordekoen alde.

b) Erretiroa hartzean.

c) Artikulu honetako a) atalean adierazitako alargunak edo oinordekoek ezin dutenean lizentzia ustiatu jarduera bakar eta eskusibo gisa.

d) Gaixotasuna, istripua edo munta handiko beste arrazoiren bat dela-eta titularra lanbiderako betiko ezindua geratu denean.

e) Lizentziaren titularrak hamar urtetik gorako antzinatasuna duenean. Toki erakundeak baimena eman ondoren eskualdatu ahal izango du, baina ezingo du lortu udalerrri bereko beste lizentziarik hurrengo hamar urteetan, ordenantza honetan finkatutako moduetan.

Kasu horietan, lizentzia eskualdatzeko asmoa duen titularrak udalari eskaera bat aurkeztu beharko dio eskualdaketa arrazoia azalduz, horretarako baimena lortuko badu.

Ezingo dira lizentziak eskualdatu udala horiek baliogabetu edo bertan behera uzteko prozedura izapidetzen ari delarik.

Lizentzien eskualdaketa bakar-bakarrik baimenduko da eskuratzailerak haren titularra izateko baldintzak betetzen dituztenean. Berez egokitu izaera duen lizentzia bada, eskualdatzeak ezingo du berekin ekarri, inolaz ere, taxi egokituen kopurua murriztea.

Eskualdatzen den lizentziari atxikitako ibilgailua lehendik zegoen bera izan ahalko da, baldin eta lizentzia erosten duenak harekin batera ibilgailua bera ere erosi badu, edo beste bat, jabe berriak jarria, baldin eta ibilgailuak ordezteko baldintzak betetzen baditu.

Nolanahi ere, sektoreko legerian sailkatutako arau hausteak direla eta administrazio bidean dagoeneko irmo diren ebazpenen bitartez jarritako diruzko zehapenak dena delako lizentziaren titularrari jarriak ordaintzea ezinbesteko baldintza izango da udalak lizentziak eskualdatzeko baimena emateko.

Ezingo dira lizentziak eskualdatu baldin eta alde aurretik epaile edo administrazio organoren batek horiek bahitzeari ekin diola jakiten badu udalak ofizialki.

Udalak, eskualdetarako indarreko arautegiak erregulatutako zirkunstantziak betetzen direla egiaztatu ondoren, baimena eman ahalko du organo eskudunaren ebazpenaren bidez.

Lizentzia eskualdatzea baimendu ondoren, eta jakinarazpenetik hilabete igaro aurretik, idazki bat aurkeztu beharko du jabeak, hura bereganatu nahi duenarekin batera, eskualdatzea benetan gauzatu dela jakinarazteko. Jabeak lizentziari uko egin diola adierazi beharko da bertan, eta jabe berriari eman dakiola eskatu. Haren datu pertsonalak eta helbidea adierazi beharko dira. Idazki hori adierazitako epean aurkeztu ezean, baimena baliogabetuta geratuko da.

Idazki honekin batera taxi lizentziaren jabe izateko bete beharreko baldintzak betetzen dituela frogatzeko beharrezko diren agiriak aurkeztu beharko ditu lizentzia eskuratu nahi duenak.

6 bis artikulua. Lizenziak iraungitzea eta baliogabetzea

1. Titularrak uko eginez gero nahiz baliogabetu edo iraungiz gero, azkenduko da lizentzia, ekainaren 29ko 2/2000 Legeak, bidaiariak herri barruan eta herriz kanpo kotxez garraiatzeko zerbitzu publikoa arautzen duenak, adierazitakoaren ildotik.

2. Era berean, ezeztapenagatik ere azkenduko da, honako hauetan:

a) Lizenziaren funtsezko baldintzak betetzen ez direnean.

b) Ordenantza honen 41. artikulua zehaztutako arrazoiak azaltzen direnean.

c) Lizentzia emateko zirkunstantziak desagertzen direnean edo bere unean ukatu izana justifikatuko zuten bestelakoak azaltzen direnean.

d) Egokiera arrazoiek hala eskatzen dutenean. Kasu horretan, lizenziaren jabeak Guardiako Udalak finkatzen duen kalte ordaina jasoko du. Merkatu azterketak aintzat hartuko dira horretarako, eta sektoreko elkarte nagusiei parte hartzeko aukera emango zaie.

III. TITULUA: IBILGAILUAK**7 artikulua. Lizenziari atxikitako ibilgailua**

Taxi zerbitzuaren titularrek lizentzia bat izan beharko dute ibilgailuari atxikia; ibilgailua zerbitzuan erabiltzeko baimena udalak emango du. Zerbitzua emateko gehieneko edukiera edo "zerbitzu edukiera" (bidaiari kopurua, gidaria barne) zehaztuko da baimenean. Edukiera hori ez da nahitaez bat etorriko ibilgailuaren beraren edukierarekin, zein handiagoa izan bailiteke.

Oro har, Guardiako taxi lizentzien zerbitzu edukiera bost plazakoa izango da. Behar bezala justifikatutako kasuetan eta izaera egokitua duten lizentziei dagokienez, edukiera hori 9 plaza-raino handitu ahalko da, udalak eman beharreko baimen bidez.

Taxia gidatzen duten pertsonak erabiltzaileen esku jarriko dute zerbitzuaren edukiera osoa, jakina denez, gidariari dagokiona izan ezik.

Gerta daiteke lizenziaren batek bost plazatik gorako zerbitzu edukiera izatea, gidariarena barne; halakoetan geltokietan gehieneko onarpena lau pertsona bezeroena izango da eta kopuru hori bakar-bakarrik gaudituhalko da, zerbitzuaren edukiera osoa bete arte, aldeztatik hitzartutako kontratazio bidez.

Banakakoa ez den segurtasun manpara instalaturik izanez gero, instalazio horretatik des-kontatuko dira gidariaren ondoko aurrealdeko plaza kopurua, baldin eta gidariak beren-beregi baimentzen ez badu bere ondoko jesarlekuaren erabilera. Ibilgailuak erabiliko dira ordenantza honek zehaztutako zerbitzuak emateko eta betiere ordenantzaren ezarpenei jarraituz; debekatuturik dago horiek bestelako helburu publiko edo profesionaletarako erabiltzea, udalaren berariazko baimen arrazoiturik ez badago.

Lizentzia eskatzen den unean, hari atxikiko zaion ibilgailuak ezingo du izan bi urtetik gorako antzinatasuna, lehenengo aldiz matrikulatu zenetik kontatuta, edozein izanik ere hori egin zen herrialdea.

8 artikulua. Ibilgailuaren ikuskapena

Ibilgailuek udalaren ikuskapena gaudituh beharko dute beharrezko lizenziari atxikiak izan aurretik, betiere zerbitzuari eta hura ezartzen duen arautegiari nola egokitzen zaizkien egiaztatzeko.

Udala, halaber, gaiturik dago taxi zerbitzuari atxikitako edozein ibilgailu ikuskatzeko egokitut jotzen duenean; titularrek ikuskapen horretara aurkeztu beharko dute ezarritako epearen barruan, horretarako errekerimendua eginez gero.

Zerbitzuaren ikuskatzaileek ibilgailuen edozein alderdi ikuskatu ahalko dute zerbitzuan daudenean edo titularrei eskatu ahalko diete udal bulegoetan hitzartutako ikuskapena pasatzeko.

9. artikulua. Ordezko ibilgailua

Gerta daiteke ibilgailuak istripua edo matxura izatea edo atxikitako ibilgailuarekin zerbitzua ezin ematea udalak ontzat eman beharreko bestelako zirkunstantzia bereziak direla eta; halakoetan, behin-behineko egoera horrek dirauen bitartean, titularrak zerbitzua ematen jarrai dezake lizentziari atxikitako antzeko ezaugarriak dituen ibilgailu baten bidez, baldin eta zerbitzua emateko indarreko arautegiak exijitutako gainerako baldintzak betetzen baditu. Horretarako, hala ere, udalari hori justifikatzen duten zirkunstantziak jakinarazteaz gain, ordezko ibilgailuaren zirkulazio baimena ere aurkeztu beharko zaio. Lizentziari atxikitako ibilgailua ordezkatzen duena aldi batez joko da lizentzia horri atxikitako ibilgailutzat. Nolanahi ere, ibilgailu hori legez eraturako sektorearen elkarte profesionali edo, hala badagokio, taxiaren zerbitzuaren profesionali loturik egongo da.

Ez da beharrezkoa izango ordezko ibilgailu hori titularraren izenean egotea; dena dela, zerbitzuari atxikitako edozein ibilgailuri eskatzen zaizkion ikuskapen berberak gaindituta izan beharko ditu. Ondorio horietarako, udalak ordezko ibilgailuak baimendu ahalko dira, nahiz eta iraunkorki lizentzia bakar bati ere atxikirik egon ez.

Jatorrian lizentziari atxikitakoa ez den ibilgailua erabili ahal izateko hilabetetik gorako epean, udalak beharrezko baimena eman beharko du beren-beregi.

Behin-behinean ibilgailua ordeztera behartu zuten inguruabarrak desagertu ondoren, zerbitzua lizentziari hasiera batean atxikitako ibilgailuarekin ematera itzuliko dela jakinarazi beharko dio lizentziaren jabeak udalari, hamar eguneko epean, eta, besterik gabe, ordezko ibilgailuak lizentzia horri atxikita egoteari utziko dio.

Ordenantza honen 31. artikulua aipatutako elkargo profesionalen batek lizentziaren titularraren esku jartzen badu ordezko ibilgailu bat, elkargo horiek ibilgailua erabiltzeko alde aurretiko baimena eskuratu beharko dute, horretarako beharrezkoak diren ikuskapenak gaindituz. Kasu horretan, artikulua honetan exijitzen diren jakinarazpenak ordeztu ahalko dira, baldin eta elkargoak behar bezala jasotzen badu lizentzia baten titularrak ibilgailua erabiltzen duela epe eta ordutegi jakin batean. Udalak ibilgailuaren erabilerari buruzko datu horiek kontsultatu ahalko ditu libreki. Legez eraturako sektorearen elkargo profesionali edo taxi zerbitzuaren profesionali atxikita egon daitekeen ordezko ibilgailuak taxi egokitua izan beharko du.

10. artikulua. Ibilgailuen ezaugarriak

Erabiltzaileari nahiz zerbitzua emateko moduari eragiten dioten ekipamendu bereziak jartzeko udalaren baimena beharko da.

Taxi zerbitzuen lizentzietara atxikitako ibilgailuek, zerbitzuan dauden bitartean, egoera onean egon beharko dute; alegia, seguruak eta ondo dabiltzan ibilgailuak izango dira eta garbi eta itxura onean egongo dira.

Gainera, indarreko legerian jasotzen diren ezaugarri guztiak eduki behar dituzte, batez ere bidaiariak herri barruan eta herriz kanpo turismo autoetan garraiatzeko zerbitzu publikoaren legearen araudian ezarritakoak.

— Karrozeria itxia eduki beharko dute, eta erraz sartzeko moduko eta funtzionamendu errazeko ateak, indarra egitea eskatzen ez dutenak.

— Behar den mekanismoa eduki beharko dute, erabiltzaileak leihatilak bere nahierara ireki nahiz ixterik izan dezan.

— Kristal garden eta urraezinak izango dituzte.

— Barne argiztapena izango dute.

— Su itzalgailu bat izango dute.

— Aire girotu edo klimatizatzailearekin ekipaturik egongo dira.

– Guardiako taxi zerbitzuaren lizentziei atxikitako ibilgailuek udalak zehaztutako kolorea izango dute; kolore hori udalak ezarriko du organo eskudunak eman beharreko ebazpen bidez. Bestelakorik ezarri ezean, ibilgailuak zuriak izango dira.

– Lizentziei atxikitako ibilgailuek zerbitzu publikoa adierazten duten “SP” xaflak eraman beharko dituzte, bai aurreko aldean, bai atzekoan. Xaflak metalikoak izango dira eta 6 x 10 zentimetrokoak, gutxienez.

– Ibilgailu egokietuek behar diren tresna eta mekanismoak eduki beharko dituzte, mugitzeko gaitasuna murriztua dutenen autonomia pertsonala eta erosotasuna bermatzeko, taxira igo eta bertan bidaiatzeko orduan.

Ibilgailuaren karrozerian edo barruko aldean idazkun jakin batzuk jartzea baimendu edo galdatu ahal izango du udalak; berak zehaztu nahiz aldatuko ditu horien ezaugarriak, eskumena duen udal organoaren ebazpena dela medio.

Publizitatea kontratatzeko baimena emateko prozedura arautuko du udalak; hain zuzen ere, Taxi Batzordeak txostena egin ondoren zehaztuko du publizitate horren forma eta edukia.

Baimena eskuratuz gero, publizitate iragarkiak kontratatu eta erakutsi ahal izango dituzte lizentzien jabeek, bai ibilgailuaren barrualdean, bai kanpoaldean, baldin eta horren estetika zaintzen badute, ikuspenari enbarazu egiten ez badiote, arriskurik sortzen ez badute, publizitate edukia Publizitatearen Lege Orokorrera egokitzen bada eta sektorearen irudia kaltetzen ez badute.

Higiene eta osasungarritasun egoera onean egon beharko dute ibilgailuek.

Segurtasun itxitura instalatua eduki ahal izango dute ibilgailuek, gidaria babesteko. Udalak Guardiako udalerrian erabiltzeko baimentzen dituen marka eta modeloetara egokitu beharko da, eta, edonola ere, estandar hauek gainditu beharko ditu:

– Atzeko eserlekuaren aurreko ertzaren eta itxituraren arteko distantziak, horizontalean, 30 cm edo gehiagokoa izan beharko du. Distantzia hori 20 cm-ra murriztea onartuko da baldin eta atzeko eserlekuen bizkarraren eta itxituraren arteko distantzia 68 cm-tik beherakoa ez bada.

– Halaber, gutxienez 15 cm-ko altuera duen tarte geratu beharko du beheko aldean, barruko zabalera guztian, berokuntza eta hozte sistemaren eragina ibilgailuaren atzeko aldera irits dadin, ez bada haize bero eta hotz hartune propioak dituela bertan.

TAXIMETROA ETA MODULUA

• Zerbitzuan dagoen guztietan, moduluak piztuta egon beharko du: argi berdea izan beharko du libre badago, eta tarifa mota adierazi, zerbitzua hartua badago.

• Taximetroak argi eta zehatz adierazi beharko du ordaindu beharreko diru kopurua, egindako ibilbideei nahiz egonaldiari dagokienez indarrean dauden tarifa ofizialen arabera.

• Zigilu ofizialek egoera onean egon beharko dute.

• Gurpil estalkien diametroak taximetroaren egiaztapen orrietan ageri den azken egiaztapen ofizialean adierazten dena izan beharko du.

• Abiarazteko kablea babesten duen zorroak ez du inongo hausturarik izan beharko.

• Bidaiarien begien bistan jarrita egon beharko du taximetroak, kopuru aldaketak ikusterik izan dezaten bere eserlekutik, batere ahaleginik gabe, ibilbidean aurrera egin ahala. Eskumena duen udal organoaren ebazpena dela medio, ikusmen arazo larria duten bidaiariei diru-kopuruaren bilakaeraren berri emateko modua arautu ahal izango da.

• Ez du izan beharko ez zulorik, ez mailaturik, ez bortxatze zantzurik.

Gutxienez lau tarifa aplikatzeko aukera eman beharko dute taximetroek, eta ordainagiriak emateko terminala eduki beharko dute.

Udalak nahiz Industria Lurralde Ordezkaritzak agintzen duten guztietan aztertu eta ikuskatuko dira taximetroak. % 3ko perdoia izango dute funtzionamendu akatsek.

Ohiko nahiz aparteko azterketetan edozein hutsune atzematen delarik taximetroak jartzeko moduan, funtzionamenduan nahiz bete beharreko edozein baldintzaren inguruan, berehalakoan kenduko da ibilgailua zerbitzutik, harik eta udalak hartara itzultzeko oniritzia eman arte.

Taxia zerbitzuan dagoen bitartean, tarifak adierazteko moduluko argi berdeak taximetroko elementu mekanikoari lotuta egon beharko du. Argi horren lanparak gutxienez lau zentimetroko diametroa eduki beharko du, eta tarifak adierazteko moduluan jarrita egon beharko du, edozein angelu horizontaletik ongi ikusteko moduan.

Moduluetan idatzitako lizentzia zenbakiek, gutxienez, 2,5 zentimetro izango dituzte.

11. artikulua. Ibilgailuen dokumentazioa

Zerbitzua ematen diharduten ibilgailuek, bestelako araudi orokorretan legez finkatutako agiriez gain, honako hauek eraman beharko dituzte:

- a) Udalak unean-unean gidari lanetan ari denari emana dion taxi gidari baimena.
- b) Hiriarteko zerbitzuak egiteko gaitasuna aitortzen duen garraio baimena, Arabako Foru Aldundiak emana.
- c) 300.000 euro arteko erantzukizun zibilerako aseguru-poliza eta azken ordainagiria, garraioa dela eta eragiten diren edozein motatako kalteen aurrean erantzuteko.
- d) Taximetroaren Metrologia Kontrolaren orria eta egindako azken egiaztatze saioa dela eta Ibilgailuen Ikuskaritza Teknikorako lantegiak emandako ziurtagiria.
- e) Erreklamazio orriak, bidaiariak herri barruan eta herriz kanpo kotxez garraiatzeko zerbitzu publikoaren legearen araudiko 42. artikuluan zehaztutakoaren ildotik.
- f) Faktura liburuxka, horretarako eskumena duen udal organoaren ebazpenaren bitartez finkatutako diseinuaren arabera moldatua, eta, nolana ere, lizentzia zenbakia inprimatua eraman beharko du.
- g) Bidaiariak herri barruan eta herriz kanpo kotxez garraiatzeko zerbitzu publikoaren legearen, horren araudiaren eta ordenantza honen aleak.
- h) Osasun etxeen, polizia-etxeen, suhiltzaileen eta larrialdi zerbitzuen helbideak, bai eta beste zentro ofizial batzuenak ere.
- i) Guardia hiriaren planoak eta kale izendegia.
- j) Probintziako mapa turistikoa.
- k) Udalak emandako tarifa ofizialen taula.
- l) Metrologia Kontrolaren etiketa, egiaztatze saioaren balio aldia ageri duela.
- ll) Irisgarritasunari buruzko legea eta haren garapen arau teknikoak, bidaiarien garraioari dagokionez.
- m) Garraio egokiturako lizentzien kasuan, elementu osagarrien fitxa teknikoa eta homologazioa.

Udalak emandako tarifa ofizialen laukia zerbitzuaren erabiltzaileen eskura jarri beharko da, horiek hala eskatuz gero. Udalak agiri ereduren bat finkatzen badu goian adierazitako dokumentazioa dela eta, ibilgailuan eramateko eta hartara egokitzeko obligazioa izango du jabeak.

12. artikulua. Ibilgailu egokituak

Berez nahiz aldi batez "egokitu" izaera duten lizentzien jabeek ahalmen urritasunen bat duten pertsonentzat egokitutako ibilgailuak eduki beharko dituzte horiei atxikiak, garraio irisgarritasunaren alorrean indarrean dagoen araudiari jarraiki.

Ibilgailua egokituzat jotzeko aintzat hartutako ezaugarriak ezingo dira aldatu zerbitzuan dagoen bitartean, aldez aurretik Guardiako Udalaren berariazko baimena eskuratu gabe.

Gurpil aulkian dabilen gutxienez pertsona bat eta haren laguntzailea eramateko prestatuta egon beharko du ibilgailu egokitu orok beti ere. Betebehar horretatik salbuetsi ahal izango ditu udalak taxi jabeak beren ibilgailua zeregin horretarako erraz moldatu daitekeela erakusten dutelarik, hau da, udalaren iritziz ibilgailua modu erraz eta arinean egokitu badaiteke ahalmen urritasunen bat duten bidaiariei zerbitzua emateko.

Berez nahiz aldi batez "egokitu" izaera duten lizentziako ibilgailu orok terminal mugikor operatiboa izango du; haren zenbakia, zerbitzuari atxikitakoa, udalari jakinarazi beharko dio titularrak, zeinek hura helarazi ahal izango duen taxi egokitu gisa erabilia izan dadin, egoki irizten dion moduan. Lizentziari lotutako telefono zenbakia aldatuz gero, udalari jakinaraziko zaio, horrek onartu beharko baitu. Udalak lizentziari lotuko zaion telefono zenbakia zehaztu ahal izango du.

IV. TITULUA: GIDARIAK

13. artikulua. Gidari sinestamendua

Taxi zerbitzua emateko, horretarako gaitasuna aitortzen dien ziurtagiria izan beharko dute gidariek; Guardiako udalerriri dagokionez, taxi gidari izateko udal baimena, hain zuzen ere.

Zerbitzuan dauden taxien gidari guztiek aldean eraman beharko dute taxi gidari baimenaren sinestamendua –eskumena duen udal organoak onetsitako eredia baliatuz emana–. Hain zuzen ere, udalak emandako sinestamendu hori erakutsi beharko diote edozein zerbitzu ikuskatzaileri hark hala eskatuz gero.

Taxi gidari baimenaren sinestamendua udalaren jabetzakoa izango da, baina lizentzia jabearen esku egongo da harik eta lizentziaren jabe izateari uzten dion arte, itzuli egin beharko baitio orduan udalari.

Taxi gidari gaitasuna aitortua izanik ere lizentziaren jabe ez direnek, udalak lizentzia jakin bati atxikitako soldatapeko gidari izateko baimena ematen dielarik, beren sinestamendua eskatu beharko diote hari; lizentziari atxikitako soldatapeko gidari izateari uzten diotelarik, berriz, itzuli egin beharko diote sinestamendu hori.

Urtebete igarotzen delarik bi hilabete edo gehiago Guardiako udalerriko lizentzia bati atxikitako gidari gisa jardun gabe eman direla egiaztatzen bada, iraungi egingo da taxi gidari izateko baimena. Epe hori betatu aurretik eskatu beharko da berriztatzea edo, bestela, baimena iraungitzat joko da.

Taxi gidari baimena eskuratzeko nahiz berritzeko, baldintza hauek bete beharko dira:

- a. Pertsona fisikoa izatea, eta ezingo zaio batera lizentziarik eman pertsona bati baino gehiagori.
- b. Beste lizentzia baten titularra ez izatea.
- c. Guardiako udalerrian erroldatua egotea eta bertako bizilaguna izatea; sei hilabeteko antzintasuna beharko da.
- d. Zerga betebeharrak egunean edukitzea.
- e. Gaitasun probak gainditzea.
- f. BTP motako gidatzeko baimena edukitzea, Probintziako Trafikoko Buruzagitzak emana.

g. Osasun agiri ofizial baten bitartez egiaztatzea Gaixotasun infekzioso eta kutsakorrik edo lanbidean jardutea eragotzen edo zailtzen dion traba fisiko edo psikikorik ez duela.

Lizentzia jabeen kasuan, gidari baimenak bost urteko balioa izango du, eta epe hori bukatu aurretik berri beharko dute. Nolanahi ere, gaitasun probak gainditzetik salbuetsita egongo dira horiek, bere garaian egin zutenaz.

14. artikulua. Taxi gidariaren gaitasun agiria eskuratzea

Taxi gidari izateko gaitasun probetarako deialdia egingo du udalak baimen hori eskuratu nahi duen norbait dagoen guztietan, eskabidea egiten denetik bi hilabete igaro aurretik egin ere.

Taxi gidariaren gaitasun agiria eskuratzeko probetara aurkeztekotan, horretarako finkatzen den tasa ordaindu dela egiaztatu beharko da alde aurretik.

Taxi zerbitzuari buruzko araudia ezagutzen dela erakutsi beharko da taxi gidariaren gaitasun agiria eskuratzeko probetan, baita Guardia hiriko mugikortasunaren inguruko araudia ere. Halaber, udalerria ezagutzen dela erakutsi beharko da –zehazki, herrien kokalekuak, interes turistikoa duten lekuenak, bulego publikoenak, zentro ofizialenak eta ospitale nagusienak–, baita hiriko kaleak eta lekutara iristeko ibilbiderik laburrenak ere, bai distantziari bai denborari dagokionez.

Era berean, kontabilitatearen eta zergen alorreko oinarritzko ezagutzak egiaztatu beharko dira, bidaiariak autoz garraiatze jardura dela eta.

Udalak egokitzen jotzen duen kasuetan, ahalmen urritasun fisikoa edo psikikoa dutenenganako begiramenaren alorreko ezagutzak eta trebetasunak ere egiaztatu beharko dira, horiek eskatzen duten garraio zerbitzuari dagokionez.

Ehuneko laurogeitik gora asmatuz gainditu beharko da honako proba hauetako bakoitza, taxi gidariaren gaitasun agiria eskuratzeko probetan:

a. Idatzizko proba bat, Guardiako udalerriko herri, kale, plaza eta monumentuen kokalekuak ezagutzen direla erakusteko, baita hotel, ospitale eta klinikenak, zentro ofizialenak, zerbitzu, kirol eta turismo ekipamenduenak eta besterenak ere.

b. Idatzizko proba bat eta beste bat praktikoa, leku jakin batetik beste leku jakin batera joateko ibilbiderik arrazoizkoena zein den ezagutzen dela erakusteko, dela helbidea ematen delarik, dela leku, ekipamendu edo erakunde publikoaren izena ematen delarik. Kaleen, plazen, ekipamendu nagusien eta monumentuen izenak ezagutzen direla erakutsi beharko da.

c. Idatzizko proba bat, zerbitzuari buruzko araudia eta aplikatu beharreko tarifak ezagutzen direla erakusteko, baita Guardian mugikortasuna arautzeko bandoak, arauak, jarraibideak eta horren inguruko bestelako ezaugarri bereziak ere.

d. Idatzizko proba bat, kontabilitatearen eta zergen alorreko oinarritzko ezagutzak erakusteko, bidaiariak autoz garraiatze jardura dela eta.

Ahalmen urritasun fisikoa edo psikikoa dutenenganako begiramenaren inguruko proba edo ikastaroak gainditzea eskatu ahal izango du udalak, egokitzen jotzen badu.

Proba horiek egiterakoan, ordenantza honetan aintzat hartzen diren sektoreko taldeen ordezkari bat presente egon ahal izango da, baina ezingo du esku hartu probak egin bitartean, ezta tartean sartu ere, nahiz eta egokitzen jotzen duena alegatu ahal izango duen bai probak egin aurretik, bai egin ondoren.

15. artikulua. Taxi gidariaren gaitasun agiria berritzea

Jardueran ez jarduteagatik –13. artikuluan araututakoaren ildotik– gaitasun agiria iraungiz gero, agiri hori eskuratzeko egin beharrekotzat adierazi diren probetatik a) eta b) ataletan azalduetakoak bakarrik egin beharko dira hura lehenengo aldiz berritzerakoan.

Hurrengoetan, berriz, proba guztiak gainditu beharko dira gaitasun agiria berritzeko.

16. artikulua. Soldatapeko gidariak

a) Salbuespenezko egoeretan jabearen heriotza, elbarritasuna, lanerako aldi baterako ezintasuna edo zerbitzua norberak ematea galarazten duen bestelako edozein egoera, behar bezala egiaztatua soldatapeko gidaria kontratatuz ustiatu ahal izango da lizentzia, udalak baimena eman ondoren. Nolanahi ere, lizentzia bakoitzak gidari bakarra eduki ahal izango du atxikia.

Lizentziaren jabea hilez gero, taxilari agiriaren oinordekoak lizentzia bere izenean eman dadila eskatu beharko du, eta hori behin-behinean ustiatzeko eskubidea izango du, soldatapeko gidari bat kontratatuz –udalak hala baimentzen duelarik–, adingabea den bitartean edo beste diru-sarrerarik ez duen bitartean. Inguruabar horiek desagertzen direlarik –udalak edozein unetan galdatzen dion moduan egiaztatu beharko du hori–, indarrrik gabe geratuko da baimena.

Beste edozein kasutan, oinordekoak berak ustiatu beharko du lizentzia, erabateko dedikazio eskusibo, edo, bestela, lizentzia eskualdatzeko eskatu, sei hilabeteko epea gainditu aurretik.

Lizentzia adingabeko batek jasotzen badu oinordekotzan, lau urteko epea izango du, adin nagusitasuna betetzen duenetik, lizentziaren ustiapena bere gain hartzeko, erabateko dedikazio eskusibo, edo, bestela, lizentzia eskualdatzeko eskatzeko.

b) Aparteko kasuetan, ordenantza honetan kontuan hartu ez diren egoera iragankorretan (jaraunspenen izapidetzea...), udalak, alegatzen diren inguruabarrak aintza harturik, lizentzia jakin bat soldatapeko gidaria kontratatuz ustiatzeko baimena eman ahal izango du behin-behinean. Hala gertatuz gero, baimena alegatzen diren inguruabarrak dirauten artean egongo da indarrean.

c) Soldatapeko gidariek ez dute edukiko inolako prerrogatibarik ez lehentasunik taxi lizentziak emateko prozeduretan.

d) Inolaz ere ezingo du zerbitzua soldatapekoak eman lizentziaren jabeak erretiroa hartu ondoren.

e) Lizentzia jakin bat ustiatzeko soldatapeko gidari baimena eskuratzeko, lan kontratua aurkeztu beharko du haren jabeak bermatzen duen soldata finkoa zehaztu beharko du bertan, gidariak irabazi ekonomikoetan izan lezakeen partaidetza gorabehera, eta proposatzen duen gidaria Gizarte Segurantzako nahitaezko erregimenetan behar bezala izena emanda dagoela erakusten duen ziurtagiria.

V. TITULUA: ZERBITZUGINTZA**17. artikulua. Ibilgailuaren zerbitzu egoera**

a) Libre dagoen ibilgailu oro behartuta egongo da eskatzen duen edozein herritarri zerbitzua ematera, ordenantza honetan adierazitako salbuespenak salbu.

b) Ibilgailua libre ala hartua dagoen, urrutitik, edozein ikuspen angelu horizontaletik ikus-teko modua izan beharko du. Egokitze jotzen dituen baldintzak finkatu ahal izango ditu udalak betebeharrak hori bete dadin.

18. artikulua. Geltokiak

Udaleko dagokion arloak jarri, aldatu nahiz kenduko ditu taxi zerbitzuko ibilgailuentzako geralekuak, sektorea ordezkatzeko duten elkarteetako kideei entzun ondoren.

Guardiako Udalak taxi zerbitzuaren geralekuak jarri, hornitu eta egokitu daitezela sustatuko du, dauden baliabideak optimizatzeko, eta geralekuen mapa egingo eta aldi oro eguneratuko.

Geralekuek behar bezala zerbitzatuta egon beharko dute.

Gutxieneko zerbitzuak finkatuko ditu udalak lehentasunezko jotzen dituen leku eta zerbitzuen inguruan zerbitzua eskaintzeko, hala nola garraio publikoaren geralekuetan, aireportuetan, ospitaleetan eta abar.

Modu hauek izango ditu erabiltzaileak zerbitzua eskatzeko –eta zerbitzua eman beharra izango du halakoetan gidariak:

a. Keinu baten bitartez deituz gidariari bide publikotik, taxia ibilian doalarik. Zirkulazioan arriskurik sortuko edo enbarazu larririk egingo ez duen lekuan gelditu beharko du halakoetan gidariak, zerbitzua eskatu duena dagoen lekutik ahalik eta gertuen. Ahalmen urritasunen bat duten pertsonen kasuan izan ezik, taxiek ezingo diote erabiltzaileen eskakizunei erantzun libre dauden ibilgailuak edo itxaroten ari diren pertsonak dauden geraleku batetik 100 baino gutxiagora.

b. Taxira joz, udalak baimendutako geralekuetako batean geldirik dagoenean. Halakoetan, geralekuan daudenetatik aurrenekora jo beharko dute erabiltzaileek, ahalmen urritasunen bat duten pertsonak izan ezik; horiek, izan ere, beren egoera fisikora ongien egokitzen den ibilgailua aukeratu ahal izango baitute.

c. Zerbitzua telefonoz, irratiz edo beste komunikazio moduren baten bitartez hitzartuz, eskabidea egiten den unerako bertarako nahiz beste une jakin baterako.

Erabiltzaileak modu horretan eskatzen badu zerbitzua, deia jasotzen duen zentralak erre-serbatutako ibilgailuaren lizentzia zenbakiaren eta kokalekuaren berri eman beharko dio, hala eskatuz gero. Eskatzen den zerbitzua taxi egokituz eman beharrekoa bada eta une horretan erabilgarri dauden taxi egokituak (% 5) hartuta ba - daude, gidariekin harremanetan jarri beharko du deia jaso duen zentralak, eta ondoren ahalmen urritasuna duen eta zerbitzua eskatu duen pertsonarekin, taxi egokituetakoa bat noiz baliatu ahal izango duen jakinarazteko.

Zerbitzua geraleku baterako eskatzen bada, eman egingo da, baina zerbitzu zenbakirik esleitu gabe.

22. artikulua. Zerbitzua telefonoz hitzartzea

Udalak komunikazio zerbitzuekin batera jardutea sustatuko du, taxi zerbitzu bitarteko telematikoen bidez eskatu ahal izateko eta zerbitzu horretara udalerrian lizentziaren titular den zernahi pertsona atxiki ahal izateko; horiez gain, zerbitzua egoki eskaintzea ziurtatuko du, zerbitzua ordenantza honetan eta udal organo eskudunek gaiaren inguruan emandako ebazpenetan xedatutakoaren arabera eskain dadin.

Horrenbestez, taxi zerbitzua bitarteko telematikoen bidez hitzartzeko elkarteak eratu ahal izango dira, eta taxi lizentzien jabeak oro bazkideku ahal izango dira horietan beren borondatez. Zerbitzu publikoaren interesa eta eduki behar duten sindikatu edo korporazio izaera aintzat harturik, beren estatuak betetzeko konpromisoa hartzen duten lizentzia jabeak oro onartu beharko dituzte bazkide gisa elkarte horiek. Udalak ez du onartuko elkarte horiek beren estatutuetan klausula diskriminatzaileak jartzea.

Hondamendia edo larrialdia egokituz gero, udaltzaingoaren edo babes zibilaren esanetara jarri beharko dute elkarte horiek, laguntza zerbitzuak behar bezala koordinatzea lortze aldera. Halaber, beren zerbitzuak herritar guztientzat iritsi-erraz direla bermatu beharko dute beti, haien egoera zeinahi izanik ere (zentzumen urritasuna, komunikazio urritasuna, ahalmen fisikoaren urritasuna...).

23. artikulua. Tarifak

Ordenantza honetan azaltzen diren hiri zerbitzuak indarrean dagoen tarifa-erregimenaren mende egongo dira. Loteslea eta nahitaezkoa izango da hori taxilari eta erabiltzaileentzat. Itsu-txakurren eta ezinduei laguntzeko bestelakoek garraioa berariazko araudira egokituko da, eta ez du gehigarri ordaindu beharrik ekarriko berekin. Udalak, sektoreko elkarte profesionali entzun ondoren, hiriko taxi zerbitzuan aplikatuko diren tarifak finkatuko ditu urtero, eta Euskadiko Prezioen Batzordeari proposamena egingo, hark behin betiko onespena eman diezaien.

Horretarako, entzunaldia emango die ordenantza honen 31. artikuluan aintzat hartzen diren elkarte profesionali. Nolanahi ere, aurrea hartu ahal izango diote horiek, eta proposamen arrazoitua egin. Halakoetan, proposamen bat helaraziko dio udalak Euskadiko Prezioen Batzordeari, elkarteena jasotzen duenetik hogeita hamar egun igaro aurretik.

Tarifa ofizialen laukiaren aleak jarriko ditu udalak lizentzien jabeen eskura, eta erabiltzaileek ikusteko moduan jarri beharko dituzte horiek beren ibilgailuetan. 20/1997 Legean, irisgarritasuna sustatzekoan, eta hori garatzeko arau teknikoetan (apirilaren 11ko 68/2000 Dekretua) jasotzen diren irizpideak aintzat harturik egin beharko da laukia.

Udalak seinaleak jarrita edukiko ditu hiriko tarifa aplikatu beharreko eremuaren mugetan.

Helmugara iritsi eta zerbitzua kobratzerakoan, ordainagiria eman beharko dio gidariak erabiltzaileari, hark hala eskatuz gero. Data, ordua, zerbitzuaren zenbatekoa eta lizentzia zenbakia ageri beharko dira bertan, gutxienez. Erabiltzaileak eskatuz gero, zerbitzuaren abiapuntua eta helmuga ere adierazi beharko dira.

Bezeroari berrogeita hamar (50) eurora arteko atzerakoa ematera behartu egongo dira taxi gidariak. Diru xehearen bila joateko ibilgailutik atera beharra badauka gidariak, gelditu egin beharko du lehenik taximetroa. Bezeroak emandako billetea 50 eurotik gorakoa bada eta gidariak diru xehearen bila joateko ibilgailutik atera beharra badauka, abian jarraituko du taximetroak.

Turismo ibilgailuaren gidariak, eskaintzen duen zerbitzua zernahi dela ere, ezin izango dio bezeroari galdatu indarrean dauden tarifen arabera kalkulaturako prezioaz gainerako osagarririk, baldin eta indarrean dagoen araudiak xedatzen ez badu eta dagokion administrazio agintaritzak babesten ez badu.

24. artikulua. Taximetroa abian jartzea

a) Hartua dagoen ibilgailu orok abian eduki beharko du taximetroa, zerbitzu hitzartua denean izan ezik.

b) Ibilgailua abiarazten denean hasi beharko du funtzionatzen taximetroak.

c) Erabiltzaile batek hutsik aurkitzen badu geralekua zerbitzu orduetan eta telefonoz hitzartzen zerbitzua, hura ibilgailura sartzen denean jaitsi beharko du bandera bertara agertzen den gidariak.

25. artikulua. Zerbitzuaren ibilbidea

Taxi zerbitzuaren erabiltzaileak beraren ustez egokiena den ibilbidea aukeratu ahal izango du, zerbitzua jasotzeko orduan. Erabiltzaileak ez badu ibilbide jakinik aukeratzen, ziur aski motzena gertatuko den bidetik eraman beharko du gidariak, egin beharreko distantzia eta beraren ustez denbora luzatzea ekar lezaketen gorabeherak oro aintzat harturik.

Bidaiariak ibilgailua aldi baterako utzi eta gidaria haiek itzuli zain geratu beharra egokitzen bada, egindako ibilbidearen eta ordu erdiko itxaronaldiaren zenbatekoa –hirigunean itxaron behar badu– edo ordu beterena –eremuan itxaron behar badu– eskatu ahal izango du hark berme gisa, ordainagiri truke, eta itxaronaldia agortzen delarik zerbitzutik aske gertatuko da.

Istripua edo matxura gertatzen bada eta horrek zerbitzua ematen jarraitzea galarazten badu –agintaritzaren agenteek egiazta dezatela eskatu ahal izango da–, une horretan taximetroan ageri den kopuruari ordaindu beharreko gutxieneko kopurua kentzetik ateratzen dena ordaindu beharko du bidaiariak. Beste auto bat eskatu beharko du gidariak, eta erabiltzaileari eskaini, eta hura hartan sartzean hasiko da kontatzen tarifa berria.

26. artikulua. Gauzak edo animaliak garraiatzea

Aldean daramatzaten ekipajeak eta guzti emango zaie taxi zerbitzua erabiltzaileei. Autoan maletak nahiz ekipajeko bestelako puskak eramaten utzi beharko diete gidariak bidaiariei, baldin eta maletategian sartzen badira, hura hondatuko ez badute eta trafikoaren alorrean indarrean dauden araudi eta xedapenak urratuko ez badira.

Erabiltzaileak ikusmen urritasuna badu, itsu-txakurra eraman ahal izango du berekin, ibilgailuaren barruan.

Salbuespen gisa, bidaiaririk gabeko enkarguak egin ahal izango dituzte taxi gidariek. “Kontratatzaille bakarra izan ahalko dute enkargu horiek aldiko, eta abiapuntu eta helmuga bakar bana; enkargua egiteaz batera, gainera, ezingo dituzte bidaiariak garraiatu.”

Halakoetan, zerbitzua eskatu duenaren izen-deiturak eta telefonoa eskura izan beharko ditu taxilariak, zerbitzu ikuskatzaileraren batek galdatuz gero emateko.

Pertsoneri ematen zaien zerbitzu arruntaren tarifa berberak aplikatuko dira halako enkarguak egiten direnean, eta hartan bezalaxe jokatuko, bandera jaisteari dagokionez.

27. artikulua. Pertsoneri premien arabera laguntzea

Zerbitzuan dauden taxien gidariek lagundu egin beharko diete ibilgailuan sartzan eta bertatik ateratzeko zailtasunak dituzten pertsoneri, baita haurrak eramateko kotxeak erabili beharra daukatenei ere. Hain zuzen ere, ekipajeak eta mugitzeko behar dituzten tresnak kargatzen lagundu beharko diete, hala nola gurpil aulkiak eta haur kotxeak, baita auto barruan ondo esertzen eta lotzeko elementuak –finkagailuak nahiz segurtasun uhala– jartzen ere.

Erabiltzailea ikusmen arazo larria duen norbait badu –berak hala esanda, edo begi-bistakoa izaki–, taxi gidariak laguntza eman beharko dio ibilgailuan sartzeko nahiz bertatik ateratzeko, eta orobat jakinarazi beharko dio helmugan zehazki zein lekutan geratu den, eta bere azken helmugara oinez joateko norantz jo behar duen azaldu, baita haraino duen bidearen berri eman ere.

28. artikulua. Zerbitzua emateari uko egitea

Gidariek, zerbitzuan eta “libre” egoeran egonik, ezingo diote eskatzen zaien zerbitzua emateari uko egin, bidezko arrazoirik izan ezean.

Hauek joko dira bidezko arrazoitzat:

- a) Zerbitzua legez kontrako zerbaitetarako eskatzea.
- b) Zerbitzua eskatzen dutenak segurtasun indarrengandik ihesi joatea.
- c) Zerbitzua ibilgailuak dituen lekuak baino pertsona gehiago eramateko eskatzea.
- d) Gauza nabaria denean zerbitzua eskatu duena edo berarekin doazenak mozkortuta edo estupefazienteekin intoxikatuta daudela, beren bizitzarako edo segurtasun fisikorako arrisku larria edo berehalakoa dagoenean izan ezik.
- e) Zerbitzua eskatzen duenak edo harekin doazenek, edo aldean daramatzaten gauzek, beren ezaugarriengatik, ibilgailuaren barrua zikindu edo honda lezaketenean.
- f) Zerbitzua egoera txarrean dauden bide ibilgaitzetan zehar egin behar denean, baldin eta horrek arriskua ekar bidezake gidariaren, bidaiarien edo ibilgailuaren segurtasunerako.

Ahalmen urritasunen bat duen pertsonak taxi arrunta eskatzen duelarik, gidariak ezingo dio zerbitzua emateari uko egin haren ahalmen urritasuna argudiatuz.

Tolestu egin beharko da gurpil aulkia, edo ahalmen urritasuna duen bidaiariari lagundu, ordenantza honen 27. artikuluan adierazten den bezala.

Taxi gidariek, norbaiti zerbitzua emateari uko egiten diotelarik, zerbitzu ikuskatzaile bati edo udalari jakinarazi beharko diote, gertatzen denetik 24 ordu igaro aurretik, eta lekua, eguna eta ordua adierazi beharko dituzte.

Artikulu honen d), e) eta f) kasuetan, gertatzen den unean bertan eman beharko da uko egitearen berri. Halakoetan, zerbitzu ikuskatzaile baten presentzia eskatu ahal izango dute bai gidariak bai erabiltzaileak, zerbitzua emateari uko egiteko arrazoirik baden egiazta dezan.

Nolanahi ere, zerbitzua emateari uko eginez gero, eta erabiltzaileak hala eskatzen badu, erreklamazio liburuan jaso beharko da gertaera hori, eta uko egitearen arrazoia adierazi.

28 bis artikulua. Emakidadunen eskubideak

Eskubide hauek dituzte taxi zerbitzuaren erabiltzaileek:

a. Lizenziaren zenbakia eta zerbitzuaren tarifak zein diren jakitekoa.

b. Maletak eramatekoa, ordenantza honetan finkatutakoaren ildotik.

c. Ordainagiria edo faktura eskuratzea, non zerbitzuaren abiapuntu eta jomuga eta prezioa adieraziko diren, bai eta, lizenziaren datuak eta zerbitzua eskaintzeko egokien jotzen den ibilbidea aukeratzeko ahalmena ere. Erabiltzaileek ez badute ibilbide jakinik aukeratzeko, ziur aski motzera gertatuko den bidetik egin beharko da beti zerbitzua, egin beharreko distantzia eta batetik edo bestetik joanda zerbitzuak izan lezakeen iraupena aintzat harturik.

d. Gidariari ibilgailuan ez erretzeko obligazioa bete dezala eskatzekoa.

e. Zerbitzua higie egoera onean eta ongi zainduta dagoen ibilgailuan jasotzekoa.

f. Ibilgailura modu eroso eta seguruan sartu ahal izatekoa. Zentzu horretan, zerbitzua ematen duten gidariek ibilgailuan sartzen eta bertatik ateratzen lagundu beharko diete mugitzeko zailtasunak dituzten pertsonen eta umeekin doazenei, baita erabiltzaileek mugitzeko behar dituzten tresnak, hala nola gupil aulkiak eta haur kotxeak, ibilgailuak horretarako dituen lekuetan sartzen ere.

g. Ilun badago, ibilgailura sartzekoan nahiz bertatik ateratzekoan, baita zerbitzua ordaintzerakoan ere, haren barruko argia pizteko eskatzekoa.

h. Taxian sartzeko nahiz bertatik ateratzeko pertsonen eta ibilgailuaren segurtasuna eta zirkulazio egokia behar bezala bermatuta dauden lekuak baliatzekoa.

i. Itsu-txakurra edo laguntza emateko diren bestelako txakurrak eramatekoa, ahalmen urritasunen bat duten pertsonen kasuan.

j. Gizalegez tratatua izatekoa.

k. Egokitzen jotzen dituzten erreklamazioak egitekoa, ordenantza honetan zehazten den moduan.

Taxi zerbitzua erabiltzeko aukera herritar guztiak izan dezatela bermatuko du Guardiako Udalak. Mugitzeko zailtasunak dituzten pertsonen erabiltzeko egokitutako ibilgailuak balia daitezela sustatuko du horretarako, arlo horretan indarrean dauden arauekin bat etorriz.

29. artikulua. Erabiltzaileen betebeharrak eta eginbideak

Hauek izango dira erabiltzaileen betebeharrak:

a) Zerbitzuaren prezioa ordaintzea, indarrean dauden tarifen arabera.

b) Gizalegez jokatzeko zerbitzuak dirauen bitartean, gidariari eragozpenik sortu eta enbarazurik egin gabe, inolako arriskurik sor ez dadin, ez gidariaren edo ibilgailuaren segurtasunari, ez zerbitzuaz kanpoko beste inoren segurtasunari dagokionez.

c) Ibilgailuko ezer ez manipulatzeko, apurtzeko edo hondatzeko.

d) Gidariaren jarraibideak errespetatzea, baldin eta zerbitzuaren onerako izango bada eta horrekin aurreko artikuluan adierazitako eskubideak urratzen ez badira.

Eginbide hauek izango dituzte erabiltzaileek:

Egin dituenak ordaindu beharko ditu ibilgailuan sortutako kalteak –edo, modu subsidiarioan, haren erantzule izateko legezko obligazioa duenak–, baita justifikaziorik gabeko salaketa dela eta galdutako denbora ere, baldin eta zerbitzu ikuskatzaile baten erabakia dela medio amaitzen bada liskarra.

Erabiltzaileak zerbitzua eskatzen badu, baina taxia iristean uko egiten, gidariak gelditu egin beharko du taximetroa, eta ordura arteko kopurua ordaindu beharko du hark.

Adingabeekin bidaiatzen duten erabiltzaileak horien portaeraren erantzule izango dira. Galarazi egin beharko diete ateen segurantza gailuak manipulatzeko, leihoak igo edo jaistea, giltza edo etengailuak sakatzea nahiz gidariari enbarazu egin eta hark arreta galtzea ekar lezakeen zaratarik egitea.

30. artikulua. Zerbitzuaren inguruko beste zenbait alderdi

a. Gidariak berea ez den zer edo zer aurkitzen badu ibilgailuaren barruan eta jabeari emateko modurik ez badauka, Udaltzaingoaren bulegora eraman beharko du, aurkitzen duenetik hirurogeita hamabi (72) ordu igaro aurretik.

b. Zerbitzua ematen ari den bitartean taxilariak ezingo dio ibilgailuari erregairik bota, salbu eta bidaiariak berariaz baimena ematen badio.

c. Pertsonen segurtasuna, zirkulazio egokia eta ibilgailuaren beraren segurtasuna aski bermatuta dauden lekuetan geratu beharko dute gidariak erabiltzaileak ibilgailuan sartzeko nahiz bertatik ateratzeko.

d. Debekatuta egongo da taxien barruan erretzea hiri barruko ibilbideetan. Hiriartekoetan, berriz, gidariaren eta erabiltzailearen arteko akordioaren mende egongo da erretzeko debekua.

e. Erabat debekatuta egongo da taxi gidariak beren zerbitzuak oihuka eskaintzea, baita norbera bidaiari izan litezkeen bila ateratzea edo beste inor horretara bidaltzea ere.

f. Galarazita egongo da geralekuen inguruan bidaiariei ateak zabaltzea edo ixteko aitzakiarekin, zerbitzuak eskaintzeko edo bestetarako autoetara inguratzen diren pertsonak izatea.

g. Taxi gidariak ezingo dituzte ibilgailuak utzi geralekuan zain dagoen bidaiaririk izanik.

h. Gidariak ezingo dute taxia hartu duen bidaiariari arrotz zaion inor eraman eserlekuetan, lanbidea ikasten ari diren pertsonak salbu. Nolanahi ere, berariaz baimena eman beharko du bezeroak halakoetan, aldeztu aurretik.

VI. TITULUA: LIZENTZIA JABEEN ETA UDALAREN ARTEKO HARREMANA

31. artikulua. Elkarte profesionalen harremanak

Entzunaldi, negoziazio, kontsulta edo dirulaguntzei gagozkiela, udalak legez eraturako taxi taldeak eta elkarteak baino ez ditu aintzat hartuko, baldin eta horriko horiek ordenantza honekin xedaturakoak betetzen badituzte eta Guardiako udalean hiri lizentziaren titular direnei aske atxikitzeke aukera ematen badie; alegia, talde horietan sartzeko eta taldekide izateko aukera ez da arbitrarioa izango eta ezin izango dute udalak neurritan kanpoko baldintza jotzen duenik eskatu.

Hemen finkatzen diren betebeharrak betetzen dituzten sektoreko elkarte profesionalen erregistroa eramango du udalak, eta bertan izena emateko eskabidea egin beharko dute halakoek.

Izena ematean, beren estatutuen kopia eskuratu beharko diote elkarte horiek udalari, baita gerora horietan edozein aldakuntza egiten dutelarik jakitera eman ere. Orobat eman beharko diote udalari hartzen duten edozein erabakiren berri, baldin eta adierazitako baldintzei eragiten badie.

32. artikulua. Arau osagarriak

Eskumena duten udal organoen ebazpenen bitartez arautu ahal izango ditu udalak ordenantza honen nahiz beste edozein arau aitortzen dion aginpidearen ondorio diren alderdiak. Behar bezala emango zaie zabalkundea ebazpen horiei, iragarki taulan argitaratuz eta aurreko artikuluan adierazitako elkarte profesionalen jakitera emanez. Hamar eguneko entzunaldia emango zaie horiei, ebazpenen inguruan esan beharrekoa esan dezaten.

Nolanahi ere, eskumena duten udal organoek emandako ebazpenen zerrenda –zerbitzuarekin zuzenean zerikusia duten ebazpenak, artean indarrean daudenak– argitara emango da urtean behin, baita aipatutako elkarteei helarazi ere.

33. artikulua. Zerbitzua ikuskatzea

Ikuskaritza ofizios egin ahal izango du udalak, baita erakunde, organismo edo pertsona fisiko interesdunek jarritako salaketen ondorioz ere.

Egokitzat jotzen dituen langileei eman ahal izango die udalak zerbitzu ikuskatzaile izateko ahalmena. Sinestamendu ofiziala emango die horretarako, eta ikuskatzen dituzten taxien lizentzien jabeek eskatuz gero, hori erakutsi beharko diete. Udaltzaingoko agente oro zerbitzuko ikuskatzailetzat joko da, sinestamendu horren beharrik gabe. Zerbitzuaren ikuskatzaileak agintari publikotzat joko dira beren eskumenen baitan dihardutelarik.

Zerbitzuaren ikuskatzaile orok izango du ahalmena, ordenantza honen haritik, zerbitzuan dagoen edozein taxiren gidariari bertan nahiz bidaiariak autoz garraiatzeko zerbitzu publikoari buruzko araudian jasotzen den edozein eskakizun edo betebeharrak betetzen duela egiazta dezala eskatzeko.

Zerbitzuan dauden taxi ibilgailuen gidariak beren burua behar bezala identifikatzen duten udal ikuskatzaileei ibilgailuetara sartzen uztera behartuta egongo dira, baita ordenantza honen, bidaiariak herri barruan eta herriz kanpo kotxez garraiatzeko zerbitzu publikoa arautzen duen legearen eta hori garatzen duen araudiaren arabera nahitaezkoak diren agiriak erakustera ere.

VII. TITULUA: ZEHAPENEN ARAUBIDEA

34. artikulua. Arau-haustea zer den

Ordenantza honetan sailkatzen eta zigortzen diren ekintzak nahiz omisioak –dolozkoak nahiz zuhurtzia gabekoak– izango dira administrazio arau-hausteak.

35. artikulua. Erregimen juridikoa

Honako ordenantza honetan arautzen diren ara hausteen ziozko administrazio erantzukizuna Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legeak xedatzen duenari jarraituz izapidetuko da.

36. artikulua. Sailkapena

Ordenantza honetan xedatutakoaren kontrako arau-hausteak oso larriak, larriak nahiz arinak izan ahalko dira.

37. artikulua. Arau-hauste oso larriak

Arau hauste oso larriak izango dira:

- a) Lizentzia baten jabeak, udalak horretarako baimendu gabeko gidari bati hari atxikitako ibilgailuarekin taxi zerbitzua ematen uztea.
- b) Arauzko lizentzia eduki gabe nahiz lizentzia iraungi ondoren zerbitzuak ematea.
- c) Beste norbaiten izenean emandako lizentzia baliatzea, edo zerbitzuan dagoen ibilgailua lizentziaren jabeaz edo izendatu eta baimendutako gidariak beste norbaitek gidatzea.
- d) Ikuskatze, zaintze eta kontrol zerbitzuen jardueri uko egin edo oztopoak jartzea, eta, horrenbestez, horien zereginak eragozteak.
- e) Ordenantza honetan arautzen diren zerbitzuak ematerakoan lege-hauste penalak egitea, otsailaren 20ko 2/1998 Legearen 18. artikuluan xedatutakoaren ildotik.
- f) Autoaren nahitaezko aseguru ez edukitzea.

g) Zerbitzua mozkortuta edo estupezazienteen eraginpean ematea.

h) Arau-hauste larria egitea, baldin eta, hori egin baino hamabi hilabeteko epean, erantzulea ordenantza honek ezarritako arau-hauste larriarengatik zigortua izan bada bide administratiboan edo bide judizialean emandako ebazpen sendoa dela medio.

38. artikulua. Arau-hauste larriak

Arau hauste larriak izango dira:

a) Ordenantza honen 8. artikuluan adierazitako ikuskatze saiora joateko udalak jarritako epea gainditzea, atzerapena bost egunetik gorakoa bada.

b) Araudian zehazten den unea baino lehenago jartzea taximetroa abian.

c) Zerbitzua modulua jarri gabe egitea, edo taximetroa abian jarri gabe, hori egitea nahitaezkoa izanik.

d) Lizentzia eta baimenei atxikitakoez beste ibilgailuren batekin ematea zerbitzua, baita agiri horietan zehazten den lurralde eremua ez errespetatzea ere.

e) Ordenantza honetan arautzen diren jarduerak erabateko dedikazio eskusiboz ez burutzea, baita bertan baimentzen ez diren zerbitzuak ematea ere.

f) Baimena eskuratu ondoren zerbitzua ematen ez hastea, edo hirurogei egun naturalez zerbitzua bertan behera utzia edukitzea, salbu eta horretarako pisuzko arrazoiren bat badela egiaztatzen delarik.

g) Erabiltzaileei zerbitzuari buruzko kexa eta erreklamazioak aurkezteko agiriak ez ematea edo halakoak eskuratzeko oztopoak jartzea.

h) Administrazioa –erabakitzen den moduan– kexa edo erreklamazio horien jakinaren gainean jarri beharrean, halakoak ezkutatu edo inolako arrazoirik gabe berandu helaraztea.

i) Nahitaezko zerbitzuak eta administrazioak finkatutako ordutegi eta atsedenaldirregimena ez betetzea.

j) Erabiltzaileen zerbitzu-eskaerei ez erantzutea, edo bidaiariak eskatutako zerbitzua burutu aurretik uztea, salbu eta ordenantza honetan jasotzen diren bidezko arrazoietakoren bat egokitzen delarik.

k) Tarifak ez errespetatzea.

l) Zerbitzua emateko orduan ibilbide ezegokiak aukeratzea, erabiltzaileen interes ekonomikoan kaltetan edo horiek esandakoari kasu egin gabe, horretarako pisuzko arrazoirik izan gabe.

m) Zerbitzua kontratatu duen bidaiariari arrotz zaion beste inor eramatea eserlekuetan, 30 h) artikuluan adierazitako salbuespena salbu.

n) Ibilgailuaren edukiera plazako norbanakoak kontratatzea, aplikazio araudian xedatutako kasuetatik at.

o) Hitz edo keinu gizagabeak erabiltzea, edo erabiltzaileei, oinezkoei nahiz beste ibilgailuen gidariei mehatxu egitea.

p) Taximetroa edo modulua ez edukitzea, ez erabiltzea edo gaizki funtzionatzea, ibilgailuan nahitaez instalatuta eduki beharreko edozein kontrol tresna edo bitarteko ez edukitzea, faltsutzea edo manipulatzeko nahiz tresna horiek eta ibilgailuak arauzko ikuskatze saioetara ez eramatea.

q) Ordenantza honetan xedatutako ezinbesteko aseguruak kontratatu gabe izatea.

r) Baimenduta daudenak baino bidaiari gehiago eramatea.

s) Azkeneko aldiz ikuskatu zenean ibilgailuak zituen ezaugarriak aldatzea, aldez aurretik zerbitzuaren ikuskatzaileak jakinaren gainean jarri gabe.

h) Arau-hauste arina egitea, baldin eta, hori egin baino hamabi hilabeteko epean, erantzulea ordenantza honek ezarritako arau-hauste arinaren inguruko zigortua izan bada bide administratiboan edo bide judizialean emandako ebazpen sendoa dela medio.

39. artikulua. Arau-hauste arinak

Arau hauste arinak dira:

a) Ordenantza honetan adierazten den ikuskatze saiora joateko udalak jarritako epea gainditzea, atzerapena bost egunetik beherakoa bada.

b) Zerbitzuan egonik, ordenantza honetan adierazten denez ibilgailuan instalatuta eduki beharra dagoen terminal mugikorreko deiei ez erantzutea, hiru alditan, egun banatan, urtebeteko aldirian.

c) Ordenantza honetan adierazten diren agiriak ibilgailuan ez eramatea, zerbitzuak egite-rakoan.

d) Dokumentazioa ageriko lekuan ez eramatea, hala egiteko obligazioa izanik.

e) Taxiak eraman beharreko bereizgarriak ez eramatea, zerbitzuan egonik.

f) Administrazioari nahitaez jakinarazi beharrekoak diren datuen berri ez ematea.

g) Erabiltzaileekin edo besterekin begirunerik gabe jokatzeko, gertakaria arau-hauste larritzat sailkatzeko arinegia bada.

h) Udalak emandako gidari baimena ez trukatzeko, horretarako finkatutako epearen barruan.

i) Gidariak bere garbitasuna behar bezala ez zaintzea, eta ibilgailua barrutik eta kanpotik garbi ez edukitzea.

j) Erabiltzaileari atzerako txanpon edo billeteak ez ematea, arauz finkatzen den kopurura arte.

k) Erabiltzaileari, esandako lekuan, hitzartutako gutxieneko denboraz ez itxarotea, zerbitzua bertatik bertara itundu ez bada.

l) Eman beharreko ordainagiria ez ematea.

ll) Erabiltzaileek ibilgailuan utzitako edozein objektu beretzat gordetzea, ordenantza honetan finkatzen den epearen barruan zerbitzu ikuskatzaileari jakinarazi beharrean.

m) Oro har, arau-hausteen zerrendan aipatu gabeko beste edozein ez betetzea.

n) Aurreko zenbakian adierazitako arau-hausteetako edozein, berorren ezaugarriak edo egokitzen diren inguruabarrak direla eta larritzat sailkatzeko modukoa ez bada, otsailaren 20ko 2/1998 Legearen 14. artikuluan xedatutakoa aplikagarri den kasuetan.

40. artikulua. Zigorrak

1. 1. Honela zigortuko dira arau-hauste arinak: ohartarazpena eginez eta/edo 276,47 eurora arteko isuna jarriz eta/edo taxilari agiria gehienez hamabost egunerako kenduz.

2. 2. Honela zigortuko dira arau-hauste larriak: 276,47 eurotik 1.382,33ra bitarteko isuna jarriz eta/edo taxilari agiria gehienez sei hilabeterako kenduz.

3. 3. Honela zigortuko dira arau-hauste oso larriak: 1.382,33 eurotik 2.764,66ra bitarteko isuna jarriz eta/edo taxilari agiria gehienez urtebeterako kenduz.

4. 4. Aurreko paragrafoetan finkatutako mugen barruan, otsailaren 20ko 2/1998 Legean xedatutakoa aintzat harturik zehaztuko dira zigorren zenbatekoak.

41. artikulua. Lizentzia baliogabetzea

Ordenantza honetan xedatutakoaren ildotik jartzen diren zigorrak gorabehera, behin eta berriz arau-hauste oso larriak egiten badira, edo jarritako zigorra betetzen ez bada, taxilari agiria kendu ahal izango da.

42. artikulua. Arau-hauste eta zigorrak baliogabe gertatzea

1. Arau-hauste oso larriak hiru urteren buruan gertatuko dira baliogabe, larriak bi urteren buruan eta arinak sei hilabeteren buruan.

2. Arau-hauste oso larriengatik jarritako zigorrak hiru urteren buruan gertatuko dira baliogabe, larriengatik jarritakoak bi urteren buruan eta arinengatik jarritakoak urtebeteren buruan.

3. Bai arau-haustek, bai jarritako zigorrak baliogabe gertatzeko epea noiz hasten den, noiz eteten den eta berriro noiz abiatzen den erabakitzeke orduan, otsailaren 20ko 2/1998 Legean araututakoari jarraiki jokatuko da.

43. artikulua. Eskumena

Eskumena duen udal organoari dagokio ordenantza honetan aurreikusten diren zigorrak jartzea.

Nolanahi ere, lizentzia baliogabetzekotan, Guardiako Udalak egin beharko du.

44. artikulua. Prozedura

Ordenantza honetan aurreikusitako zigorrak jartzeko prozedura administrazio prozedura erkideari buruzko legedian finkatutako zigortzeko administrazio prozeduraren arau eta printzipioetan jasotzen denera egokitu beharko da, baita Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen Zigortzeko Ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legean xedatutakora ere.

45. artikulua. Ibilgailua gelditu atxikitzea

Prozedura zigortzailean har litezkeen zuhurtasuneko neurrien inguruan legean xedatutakoa gorabehera, zerbitzua ematen duen bitartean baten bat ordenantza honetan xedatutakoa larriki urratzen ari dela atzematen bada, ibilgailua berehalakoan gelditu atxikitzeke agindu ahal izango da, harik eta horretarako arrazoiak –arau-hauste bide direnak– desagertu arte, eta behar diren neurriak hartu ahal izango ditu administrazioak zerbitzua hobeto eman dadin.

46. artikulua. Ordaintzea

Administrazio-bidean dagoeneko irmo diren ebazpenen bitartez jarritako diruzko zigorrak ordaintzea ezinbesteko baldintza izango da lizentziak eskualdatzekotan.

Xedapen indargabetzaileak

Bakarra. Indargabetzea.

Indargabetuta geratuko dira Hiri Barnean zein Hiritik Kanpo Ibilgailu Arinen bidez Garraio Zerbitzua emateari buruzko Udal Araudia eta ordenantza honetan araututakoarekin bat ez datozen Guardiako Udalaren xedapenak oro.

Azken xedapenak

Lehenengoa. Isunak eguneratzea.

Eusko Jaurlearitzako Garraio eta Herri lan Sailak xedatutako zenbatekoen arabera eguneratuko dira ordenantza honetan aipatzen diren isunen zenbatekoa.

Bigarrena. Indarrean sartzea.

Ordenantza hau ALHAOn argitaratu eta hilabetegarrenean sartuko da indarrean.

Xedapen gehigarriak

Lehena.

Ordenantza hau onesteko unean 174 taxi lizentzia daude Guardiako udalerrian. Horietatik, zenbaki hauek dituztenek dute berez egokitu izaera: 156, 157, 170, 171, 172, 173 eta 174.

Bigarrena.

Ordenantza honetan aintzat hartzen diren elkarte eta taldeekiko elkarlanean, taxi zerbitzuan, apurka-apurka, gutxiago kutsatzen duten erregaiekin funtzionatzen duten, hau da, eguratsera askoz ere gas edo gai kutsatzaile gutxiago botatzen dituzten motorrez hornitutako ibilgailuak erabiltzeari ekin dakiola sustatuko du udalak.

Hirugarrena.

Gehienez hilabeteko epean, ordenantza hau indarrean jartzen denetik, eskumena duen udal organoak zerbitzua emateko egutegia ezarri eta gutxieneko zerbitzuak finkatuko ditu, zerbitzua behar bezala ematen dela bermatzeko.

Laugarrena.

Asko izaki euro-taxi bihurtzeko moduko auto-modeloak, udalak ez du inongo diru laguntzarik modelo jakin batera mugatuko, baizik eta dena delako ibilgailuak ahalmen urritasunen bat duen bidaiariari eskaini diezazkiokeen segurtasunaren eta erosotasunaren inguruko ezaugarriak aintzat hartuko.

Bosgarrena.

Erakunde publiko nahiz pribatuei hitzartutako zerbitzuak emateak ezingo du berekin ekarri, inola ere, une jakin horretan erabilgarri dauden euro-taxi egokituen kopurua ehuneko 5etik jaitea.

Xedapen iragankorrak

Lehena.

Udal taxi lizentzia duten titularrek sei hilabete izango dituzte ordenantza hau indarrean jartzen denetik aurrera ordenantza honetan xedatutakoetara egokitzeko zerbitzura atxikitako ibilgailuak eta haien ekipamendua. Epe hori betatu baino lehen ibilgailua aztertzeko eskatu beharko dute.

Bigarrena.

Udalak lizentziaren baten zerbitzu-ahalmena –besterik adierazi ezean bost bidaiari, gidaria barne– aldatzeko ordenantza hau indarrean jarri aurretik emandako zeinahi baimen edo bestelako xedapen indarrak gabe geratuko da bost urteren buruan –hau indarrean jartzen den egunetik kontatuta– edo lizentziari atxikitako ibilgailua aldatzea baimentzen denean.

Hirugarrena.

Ordenantza honen 9. artikulua bosgarren paragrafoaren amaieran ezarritakotik salbuetsita egongo dira ordenantza hau onartzeko unean existitzen diren ordezkotako ibilgailuak.

Guardia, 2019ko urtarrilaren 24a

Alkate-lehendakaria

J. PEDRO LEON GARCIA DE OLANO